



Acta 8. Sesión

Grupo Motor del Reto “Red vecinal”.

EKIN Leioa.

a. ORDEN DEL DÍA/ CONTEXTO

La semana del 17 de abril, el Ayuntamiento de Leioa ha distribuido la encuesta diseñada por el EM en 16 puntos aliados del municipio. Además durante esa misma semana el EM ha realizado una campaña de calle en la cual han estado animando a la población mayor de 60 años de Leioa a rellenar la encuesta.

En total se han impreso 550 encuestas (500 unidades en castellano y 50 en euskera), aunque ha sido necesario contar con más copias para la campaña de calle de la ciudadanía.

Los buzones han estado situados en los puntos aliados durante aproximadamente 3 semanas y en total con esta campaña se han conseguido rellenar 222 encuestas. El siguiente paso es analizar toda esa información.

En la sesión de hoy hemos contamos con la visita de dos de las investigadoras de EHU que han estado asesorando al EM con la encuesta. En este caso han venido a explicar al EM como deben de rellenar el fichero de datos, que será la herramienta que se utilizará para el análisis de datos.

a. GALORDENA / TESTUINGURUA

Apirilak 17ko astean Leioako udalak TE-k diseinatutako inkesta herriko 16 guneetan banatu du. Aste horretan ere, TE-ko kideek kalean inkesta betetzeko kanpaina bat aurrera eraman dute, non 60 urte gorako auzokideei inkesta betetzen lagundu dieten.

Guztira 550 inkesta ale banatu dira (500 gaztelaniaz eta 50 euskaraz) baina kaleko kanpainarako ale gehiago inprimatzea beharrezkoa izan da. Guztira 222 inkesta betetzea lortu dute eta hurrengo pausoa informazioa hori aztertzea da.

Gaurko saioan EHU-ko bi ikertzaileen bisita izan dugu datuen fitxategia nola betetzen den azaltzeko hurbildu direnak. Haien izan dira excel fitxategia sortu dutenak eta herritarrei bertan datuak nola bete azaldu diete.

8. sesión GRUPO MOTOR

Ciudadanía: 5 personas.

Fecha: 3 de mayo de 2023.

Hora: de 17.00 a 19.00

Educadoras: 1 Herrigune Leioa

EHU: Dos investigadoras de Kideon.

Otras cuestiones:

El EM decide modificar la periodicidad de sus sesiones ya que el trabajo que necesitan hacer ahora es más autónomo y requiere de más horas de trabajo.

Una vez el EM tenga picados todos los datos de las encuestas volveremos a contactar con EHU para que nos expliquen como hacer el análisis de datos.



Acta 7. Sesión

Grupo Motor del Reto “Red vecinal”.

EKIN Leioa.



7. Saioaren akta

“Auzokide Sarearen” Talde Eragilea.

EKIN Leioa.

a. TESTUINGURUA:

Gaurko saioan hurrengo gaiak landu ditugu:

1. Leioako Osasun Zentroak prestatutako “Zahartze aktiboaren” inguruko hitzaldiaren ebaluaketa.
2. TE-rekin Udalak diagnostikoaren inguruan emandako azkenengo informazioa partekatzea.
3. Udal aldizkariaren berria idaztea.
4. Apirilak 17ko astearren plana prestatu.

b. LANDUTAKO GAIAK:

I. “Zahartze aktiboaren” hitzaldiaren ebaluaketa

Astelehenean “Auzokide Sarearen” Talde Eragilearen hainbat kide Leioako Osasun Zentroko mediku eta erizain egoiliarrek “Zahartze aktiboaren” inguruan antolatutako hitzaldian parte hartu zuten. Hurbildutako kideentzat oso esperientzia positiboa izan zen, bertan hitz egindakoa Auzokide Sarearen filosofiarekin bat zetorrelako.

Alderdi negatiboei dagokionez, TE-tik jende gutxi hurbildu zela aipatu zen, baina Laborategitik pertsona ugari hurbildu zirenez, orokorrean hitzaldiaren jendetza nahiko zabala izan zen, 13 partaiderekin. Alderdi positiboak kontuan hartuz, hitzaldia TE-an parte hartu zuten pertsonekin harremana berreskuratzeko eta elkarlana eskatzeko baliagarria izan zen, baita taldera kide gehiago batzeko.

Horrez gain, hitzaldia Osasun Zentroarekin harremanetan jarraitzeko baliagarria izan zen, diagnostikoari begira elkarlanean aritzeko. TE-ko kideek ere aipatzen dute Osasun Zentroko fisioa aliatu ona izan daitekeela eta galdetegia zabaltzeko laguntzeko prest dagoela.

2. Udalak diagnostikoaren inguruko azkenengo informazioak TE-rekin partekatu.

Pasaden astean, Ongizate Saileko zinegotziak Herrigunereren idazkaritza teknikoari deitu egin dio galdetegia postontzietan banatzea ezinezkoa izango dela azaltzeko, lan hori burutzeko aurrekontua aurreikusitakoa baino askoz handiagoa delako. TE-rekin lan hori partekatzen da teknikoki pentsatzen zen baino askoz zailagoa dela. Alde batetik, udal aldizkariaren barruan orrialde eramangarri bat sartzeko inprenta gelditu beharko zen, eta horrek aurrekontua igo egiten du. Udal aldizkariaren banaketa aprobetxatzea ere ezinezkoa da, banaketaz arduratzen den enpresak bi banaketa izango balira bezala ulertzen duelako lana eta horrek berriro ere aurrekontua gaintitzen du. Nahiz eta banaketa ez egin, Ongizate Sailak galdetegia inprimatzeaz bai arduratzen da.

7. saioa Taldea Eragile

Herritarrak: 5 pertsona.

Data: 2023ko martxoaren 15an.

Ordua: 17.00 -19.00

Hezitzaileak: Herrigune Leioaren 2 hezitzaile.

Beste batzuk:

-Apirileko saioen egutegia berrikusten da diagnostiko fasea datorrenez, hamabost eguneroko maiztasuna aldatzeko beharra eman daitekeelako.

-Taldea Whatsapp taldea irekitzea adosten du, behintzat diagnostiko fasean.

-Hurrengo saioak martxoak 29an adosten da eta eginbeharrekoa difusio lana izango da.



7. Saioaren akta

“Auzokide Sarearen” Talde Eragilea.

EKIN Leioa.

Talde Eragileak egoera hau gainditzeko estrategiak pentsatzen ditu. Alde batetik, aliatuekin hitz egitea erabakitzen da eta difusio lanean laguntza gehiago eskatu. Euren erabiltzaileei inkesta betetzearen garrantzia azaltzeko eskatuko zaie. Horrez gain, puntu aliatuak inkestak hartzeko eta uzteko guneak izango dira, batez ere, udal zerbitzuetan kokatuta daudenak.

Honen arira, pertsona helduengana heltzearen inguruan hausnartzen da, hau da adineko horien seme-alabeei nola iritsi, aliatu onak izan daitekeelakoan. Espazio ezberdinetan, hala nola, kultur, nagusien etxeak... sensibilizazio saioak egitea ideia ona dirudi, nagusiek “desio edo nahien” inguruan hausnartu dezaten. Laborategian saio pilotu bat egitea proposatzen da.

Bestetik, diagnostiko fase honetan Ongizate Sailarekin lana koordinatzeari dagokionez, TE-k hainbat zalantza ditu:

- Noiz egongo dira inprimatuta inkestak? Zenbat ale egongo dira? Noiz eramango dira gune aliatuengana?
- Nork arduratuko da banaketaz? Noiz egingo da?

Taldeko kide batek komentatzen du inkesta etxeetara helduko ez bada, eta Aste Santua erdian izanik, ez al duen zentzu gehiago difusio kanpaina osoa apirilaren 17an haztea. Hasiera batean postontziak oporrak baino lehenago kokatuta egotea zen ideia, baina estrategia berria hau Ongizate Sailarekin aztertuko da.

3. Udal aldizkarirako testua

TE-k testu¹ bat prestatzen du eta Herrigune Leioaren idazkaritza teknikoak bukatu eta udaletxearen komunikazio sailera bidaliko dio.

4. Kaleko plana

Aurreko saioan prestatutako plana gaurkotu egiten da:

LUNES / ASTELEHENA APIRILAK 17 ABRIL	MARTES / ASTEARTEA APIRILAK 18 ABRIL	MIÉRCOLES / ASTEAZKENA APIRILAK 19 ABRIL	JUEVES / OSTEGUNA APIRILAK 20 ABRIL
	Pinueta (texas) 11:30 - 13:00	Sabino Arana 11:30 - 13:00	Sabino Arana 11:30 - 13:00
Pinueta (texas) 17:30 - 19:00	La Chopera (Lamiako) 16:30 - 18:00	San Juan (pasarela) 16:30 - 18:00	Laboratorio Ciudadano (Udondo) 16:30

1 Ikusi Udal aldizkaria eranskina